

**NAFARROAKO AURREKONTU
OROKORREN AURREPROIEKTUA
2007 URTEA**



IRUÑEA, 2006ko ABENDUA

ERABAT HAUTESKUNDEEI BEGIRAKO AURREKONTUAK

UPN eta CDN-k osaturiko koalizio Gobernuak legealdi honetako azkeneko Nafarroako Aurrekontu Orokorrak aurkeztu ditu hauteskundeak ospatzekoteko hilabete gutxiren faltan, eta gertaera horrek eragin nabarmena izan du Aurrekontuen prestakuntzan ondoren ikusiko dugun moduan:

Aurreproiektuan aurkezturiko gastu bolumen osoa 3.519,58 miloi eurotako da (gastu fiskalak kontutan hartu gabe), 2006. urterako onarturiko gastu aurrikuspena baino %12,28 altuagoa, eta %15,42 altuagoa gastu fiskalak kontutan hartuz gero. Gizarte mailako beste behar batzuen aldean aurrekontu-oreka eta zero defizitak jarraitzen dute helburu nagusi izaten.

Gastuak izan duen %12,28ko hazkunde hau ez da nahikoa Nafarroak dituen beharrei aurre egiteko, baina 2004, 2005 eta 2006ko %3,9, %4,4 eta %7,4ko hazkundeak baino dezente altuagoa da. Badirudi etxeko-lan guztiak azken urterako utzi dituztela eta 2007ko Aurrekontuez baliatu direla hauteskunde kanpainari hasiera emateko.

Lehendakariorde eta Ekonomia sailburu den Francisco Iribarrenek onartu du gastuaren gehikuntza “aurrekontuen hauteskunde ziklo” delakoaren ondorioa dela. Ikusteke dago hala ere guztiz exekutatzeko gai izango diren edo dena asmoen aitortze huts batean geratuko den.

Beste hainbeste gertatzen da BPG eta Aurrekontuko gastuaren arteko harremana aztertzen badugu; 4 urtetan beheranzko joera izan ondoren, 2007. urtean igo egiten da, baina oraindik 2002. urteko %21,2tik urrun. Beraz, legealdi honetan, gastu publikoaren hazkundera BPG-ren hazkundera baino txikiagoa izan da.

Exekutatutako gastuak BPG-rekiko duen pisuaren bilakaera

	2002	2003	2004	2005	2006*	2007*
Exekutatut. Gastu Aurrek.	2.565.800	2.688.500	2.789.233	2.917.559	3.134.714	3.519.579
BPG	12.099.950	12.881.210	13.841.220	14.804.830	15.900.387	16.981.614
GASTUA / BPG	%21,2	%20,9	%20,2	%19,7	%19,7	%20,7

* 2006ko BPG gobernuaren aurrikuspenen arabera neurtzen da: BPG-ren %3,6ko hazkundera eta %3,8ko inflazioa.

* 2007ko BPG gobernuaren aurrikuspenen arabera neurtzen da: BPG-ren %3,4ko hazkundera eta %3,4ko inflazioa.

Aurrekontuak oso tresna garrantzitsua dira ekonomiaren plangintza eta interbentzio publikorako, gastu publikoa eta zerga bilketaren bidez ekoizpen sektoreen berrantolaketan eragin daitekeelako, gizarte sektore behartsuenen alde errenta berbanatu daitekeelako eta erabilera publikoko zerbitzu eta ondasunez gizartea horni daitekeelako.

Baina politika neoliberalen indartzeak, gastu publikoak ekonomian duen pisua murriztea dakar, interes orokorrean oinarrituz parte hartzeko ahalmena gutxituz, eta kapital pribatuaren interes partikularrak gailenduz.

BEHAR LARRIENEI ERANTZUN ETA GASTU SOZIALEAN EUROPAREKIN BAT EGITEKO AUKERA GALDU DA

Azpirarratu beharra dago gastu partida desberdinen artean, aurrekontu hazkunde handiena Presidentzia, Justizia eta Barne Sailera eta Ekonomia eta Ogasun Sailera zuzendurik dagoela, bi departamendu hauen artean gastuek osotasunean jasandako gehikuntzaren %40,8 xurgatzen baitute.

Baina izaera soziala duten Hezkuntza eta Osasunaren moduko gastu partidak batz bestekoaren (%12,28) azpitik hazi dira, Gastuen Aurrekontu Orokorrarekiko pisua galduz.

Gainera, bi sail hauek BPG-rekiko duten pisuak azken urteetan izan duen bilakaera aztertzen badugu, garbi ikus daiteke urtez urte txikitzen ari dela, Europarekiko urrunduz.

Europar Batasunean politika sozial mailan aurreratuak diren herrialdeetan helburu moduan osasuneko gastua BPG-ren %7koa eta hezkuntzako %5koa izatea ezartzen dute; baina Nafarroan, osasuneko gastua %4,75koa da eta hezkuntzako ez da %3,3ra iristen.

Adibide bat jartzearen, 2003. urtean hezkuntzan egindako gastuak BPG-ren %3,65 suposatzen zuen eta 2007. urtean bere pisua %3,29koa izango da, hau da, 0,36 puntu txikiagoa. Denbora epe horretan hezkuntzara zuzenduriko gastua ekonomiaren erritmo berean igo izan balitz, 61 milioi eurotako kreditu gehigarri bat izango genuen.

Gastu Aurrekontuaren Aurreproiektua (milaka eurotan)

Saila (gastu fiskalik gabe)	2007	2006*	2006-07	Diferentziak	%
Presidentzia, Justizia eta Barne Saila	236.155,1	198.219,5	%19,1	37.935,6	%9,9
Ekonomia eta Ogasun Saila	721.423,1	602.749,4	%19,7	118.673,7	%30,8
Herri Administrazio Saila	263.696,6	241.815,3	%9,0	21.881,3	%5,7
Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta	132.551,1	113.025,0	%17,3	19.526,1	%5,1
Hezkuntza Saila	559.432,3	512.270,2	%9,2	47.162,1	%12,3
Osasun Saila	806.270,5	731.763,0	%10,2	74.507,5	%19,4
Obra Publiko, Garraio eta Komunikazio	142.099,3	130.213,7	%9,1	11.885,6	%3,1
Nekazaritza, abeltzantza eta Elikadura	135.370,6	125.888,6	%7,5	9.482,0	%2,5
Industria eta Teknologia, Merkataritza	187.975,6	176.457,7	%6,5	11.517,9	%3,0
Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Sail	236.113,3	206.011,0	%14,6	30.102,3	%7,8
Kultura eta Turismo-Instituzio Saila	82.022,1	80.359,3	%2,1	1.662,8	%0,4
Nafarroako Kontseilua	589,4	589,4	%0,0	0,0	%0,0
Ikus-Entzunezko Nafarroako Kontseilua	610,6	710,2	%-14,0	-99,6	%0,0
Nafarroako Parlamentua	15.269,9	14.642,0	%4,3	627,9	%0,2
GUZTIRA	3.519.579,5	3.134.714,3	%12,3	384.865,2	%100

* 2006. urterako onarturiko Aurrekontuarekin egina dago konparaketa.

Hazkunde esanguratsua jasan duen beste sail bat Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitzarena da, bere zenbatekoa %17,3 igo baita; hala ere oraindik ez da nahikoa, gobernuak etxebizitzan 79 milioi euro soilik gastatzen baititu, hau da, BPG-ren %0,46.

Kontutan hartu behar da gastu fiskalek izugarrizko eragina dutela partida honetan, izan ere gobernuak Aurrekontuetan aurkezturiko 271 milioi euroatik 138 milioi etxearen erosketa eta alokairuagatiko kenkariak baitira, benetako aurrekontua 132 milioi eurotako soilik izanik.

Beste batzutan garbi adierazi dugun moduan, gure ustez, gastu fiskalen ondorioz jaso gabe geratzen diren sarrerek (138 milioi euro 2007. urtean) erabilera hobea izango lukete benetan beharra duten biztanleek etxea lortzera zuzenduko balira.

Beste hainbeste gertatzen da Industria, Teknologia, Merkataritza eta Lan Sailarekin; gobernuak aurkezturiko Aurrekontuetan agertzen diren 369 milioi euroatik 181 milioi euro hainbat arrazoigatiko gastu fiskalak dira, eta benetako aurrekontua 188 milioi eurotara murrizturik dago.

Eta beste urte batez, partida honen zati garrantzitsuena hainbat kontzepturengatik (inbertsio, teknologia berrikuntza eta enplegua) enpresarien poltsikoetara joango diren subentzioek osatzen dute. 2007. urtean 74 milioi euro baino gehiago izango dira eta honi gobernuak datozen hiru urtetarako iragarri duen 90 milioi euroko ezohizko subentzio plana gehitu behar zaio.

LEGEALDI NEGARGARRIA EUSKARARENTZAKO

Hasieran esan badugu Aurrekontuak erabat hauteskunderi begirakoak direla, euskararekin loturiko partidak dira adibide hoberena; bi urtetan jaitsiera eskandalugarriak jasan ondoren, 2007. urtean %20,75 igoko dira, gastu osoa 4.747.513 eurotako delarik.

Hala ere balorazioa desberdina da legealdi guztia aztertzen badugu: 2004. urtean euskararekin loturiko gastu partiden batura 5.332.579 eurotako zen; 2005 eta 2006ko urte beltzen ondoren 3.931.528 eurotara jaitsi zen eta 2007. urterako ez dira 2004. urteko zenbakietara iristeko gai izan. Hau da, legealdi honetan aurrekontua ia %11 gutxitu da.

Horren ondorioz, 2000. urtean Nafarroako Gobernuak euskarari gastu osoaren %0,34 zuzentzen bazion, 2007. urterako aurrikusitakoaren arabera portzentaia hori %135era jaitsiko da.

Partidak banan-banan aztertzen baditugu, adierazgarria da 2006. urtearekin alderatuz Gau-Eskolak-i emandako diru-laguntzak (%114) eta komunikabidetako euskarari buruzko programak (%20,76) jasan duten hazkundera; baina konparaketa 2004. urtearekin egiten bada, bi partidak %5,47 eta %3,68 gutxitu dira hurrenez hurren.

Bestalde, nahiz eta euskarazko heziketa materialen ekoizpena eta udaletxe eta kontzejuei euskararen inguruan emandako diru-laguntzak ia zerbait igo diren (%4 eta %2,5), legealdian %50 inguru jaitsi dira (%55,59 eta %48,58).

Euskararekin loturiko gastu partidak	2007	2006	Ald. 07-06	2004	Ald. 07-04
Funtzionarioen ordainsari fijoak guztira	518.191	511.907	%1,23	1.445.092	%-64,14
Langilegoaren ordainsariak	0	0	-	30.665	-
Gizarte Segurantza	78.436	57.615	%36,14	224.610	%-65,08
Irakaslegoaren euskararen perfekzionamendua	55.764	53.619	%4,00	54.545	%2,23
Euskararen erabilerarako programak	181.582	136.137	%33,38	129.740	%39,96
Euskarazko heziketa materialaren ekoizpena	37.485	36.043	%4,00	84.409	%-55,59
EGako azterketak, tituluak eta funtzionamendu gast	43.230	31.952	%35,30	26.043	%65,99
Euskararen promozio iharduerak	174.755	139.187	%25,55	186.222	%-6,16
Euskararen promoziorako bekak eta laguntzak	171.027	166.856	%2,50	195.024	%-12,30
Gau-Eskolak-i diru-laguntza	500.000	233.600	%114,04	528.957	%-5,47
Historia eta geografiako liburuen edizioa euskaraz	144.000	0	-	100.000	%44,00
Euskaltzaindiarekin akordioa	140.752	137.319	%2,50	134.627	%4,55
Euskararen Kontseilu Nafarra	3.051	2.934	%3,99	3.000	%1,70
Udaletxe eta kontzejuei euskararen inguruan emand	429.366	418.894	%2,50	835.000	%-48,58
Euskarari buruzko programak komunikabideetan	298.250	246.975	%20,76	309.642	%-3,68
Zona ez euskalduneko ikastolei diru-laguntza berezi	344.382	1.758.489	%-80,42	1.045.003	%-67,04
Zona ez euskalduneko ikastolak. Irakaskuntza pribat	1.521.242	0	-	0	-
Paz de Ziganda ikastolari diru-laguntza	100.000	0	-	0	-
Euskararen Liburutegia Nafarroan	6.000	1	-	0	-
GUZTIRA	4.747.513	3.931.528	%20,75	5.332.579	%-10,97

Beraz, nahiz eta Nafarroako Gobernuak 2007. urtean euskararen alde esfortzu handia egingo duela esan, datuek kontrakoa diote, eta 2004. urteko gastu mailara iristeko gai ez da izango.

NAFARROAREN ESTATU ESPAINIARRAREKIKO MENDEKOTASUN EKONOMIKOA

2007. urterako Aurrekontu proiektuan jasotakoaren arabera, Estatuari egindako Aportazio Likidoa 580,9 milioi eurotako izango da, Nafarroak bere gain hartu gabeko eskuduntzengatik Estatuak dituen gastuen ondorioz, hau da, partida honek %19,11ko hazkundera jasango du 2006. urtearekin alderatuz gero.

Baina kopuru hau iceberg-aren punta besterik ez da, eta ez du jasotzen Nafarroak Estatuaren gastu orokorrak finantzatzeko burutzen duen ekarpen osoa (Aportazio Osoa). Gastu hauek, Estatuak, unilateralki, berarentzat gordetzen dituen eskuduntzen ondorioz buruturikoak dira, Foru Erkidegoko Gobernuak “bere gain hartu gabeko gastu” moduan ere ezagutzen direnak.

Nafarroan ez dugu gastu partida hauen helburua edo kopurua erabakitzeke ahalmunik, baina Ekonomia Hitzarmenak hauen kostuaren %1,6 finantzatzera behartzen gaitu.

2000. urteko Aportazio Osoa kalkulatzeko, Estatuako Gastuen Aurrekontuaren %46,4 foru gobernua “bere gain hartu gabeko gastuetara” zuzendua egongo zela erabaki zen. Kalkulu metodo hau 2007. urtera eramanez gero, ikus daiteke gobernu espainiarrak 87.407 milioi euro inguru erabiliko dituela Estatuaren gastu orokorre

erantzuteko; eta Nafarroak finantza esfortzu honen %1,6¹ ordaindu beharko du, 1.400 milioi euro inguru.

2007. urteko Nafarroaren Aportazio Osora hurbilketa (milaka eurotan)

	2007	%
2007. urterako Estatuko Gastuen Aurrekontua	188.417.350	%100
Nafarroak bere gain hartu gabeko gastuak	87.407.490	%46,4
Bere gain hartu gabeko gastuen Aportazio Osoa	1.398.520	%1,6

Kopuru garrantzitsu honek 2007. urteko Aurrekontu Gastu Osoen %42 suposatzen du, eta politika, ekonomia, fiskalitate eta aurrekontu mailako burujabetza ezaren ondorioa da.

Hala ere, Aportazio Oso honi ajuste batzuk egiten zaizkio, Estatuak Nafarroarekin hitzartu gabeko zergen bidez jasotzen dituen sarrerak eta zerga izaera ez duten beste sarrera batzuk (aktibo finantzarioen interesak, ondare sarrerak, tasak, transferentziak eta diru-laguntzak, ...) kenduz. Konpentsazio hauek egin ondoren Nafarroako Aurrekontuetan agertzen den kopurua, Aportazio Likidoa, lortuko genuke.

Nafarroak eta bere hiritargoak jasaten duten gastuen bolumen garrantzitsu bat ez du Foru Parrlamentuak kontrolatzen. Noski, gastu hauen artean daude abentura militarrek finantzatzen zuzendurikoak, Errege Etxea, Erreinuaren batasuna indarraren bidez ziurtatzen duten aparatatu juridiko polizialak, ...

Adibide bat jartzearren, 2007. urterako Errege Etxearen aurrekontua 8.289.970 eurotako da, hau da, ia aintzinako 1.380 milioi pezetatakoa, eta Nafarroak kopuru horren %1,6 ordaindu beharko du, 132.640 euro.

SARREREN AURREKONTUKO DATUEN MANIPULAZIOA

Duela pare bat urtez gero, Nafarroako Gobernuak onura fiskalen zati bat Aurrekontuan sartzen hasi da. Onura fiskalak, kenkari, salbuespen, hobari, ...-en ondorioz gertatzen diren sarrera gutxikuntzak dira.

Lehen ez ziren sekula kontutan hartzen Aurrekontuan, sarrera murrizketa soil bat baitira, ez administrazioak buruturiko gastu edo inbertsioa.

Gainera zerga zuzenetan nahiz zeharkakotan egon daitezke; 2007. urterako 1.443 milioi eurotako onura fiskalak aurrikusi dira, 692 milioi euro zerga zuzenetan eta 751 milioi euro zeharkako zergetan.

Hala ere Nafarroako Gobernuak ez ditu sartzen onura fiskal guztiak Aurrekontuan, hauen zati bat soilik. Eta nahiko susmagarria den prozedura honen ondorioz erabat aldatzen dira azken emaitzak:

¹ Ekonomia Hitzarmenean ezarritako Egozte Indizea.

2007. urteko Aurrekontuan 382 milioi euro sartzea erabaki dute, baina kasualitatez denak zerga zuzenetako onura fiskalak dira, PFEZ-ko 216 milioi eta Sozietateen gaineko Zergako 166 milioi.

Modu honetan zerga zuzenak artifizialki puzten dituzte, zerga zuzenen bidezko diru bilketa benetan aurrikusitakoa baino askoz altuagoa izango denaren itxura emanaz.

Itundutako zergen sarrera Aurrekontua (milaka eurotan)

Nafarroako Gobernuaren arabera

	2007	%	2006	%	2007-06
Zerga Zuzenak	1.870.963	%51,3	1.669.080	%52,0	%12,1
PFEZ	1.187.500	%32,6	1.032.535	%32,2	%15,0
Sozietateak	604.157	%16,6	487.262	%15,2	%24,0
Ondarea	53.614	%1,5	45.776	%1,4	%17,1
Oinordetzak	25.692	%0,7	23.150	%0,7	%11,0
Zeharkako Zergak	1.775.500	%48,7	1.540.113	%48,0	%15,3
BEZ	1.162.723	%31,9	965.730	%30,1	%20,4
Zerga Bereziak	454.280	%12,5	440.910	%13,7	%3,0
Ondar. Eskual. eta Ekin. Jur.	158.497	%4,3	133.473	%4,2	%18,7
GUZTIRA	3.646.463,0	%100,0	3.209.193,0	%100,0	%13,63

Itundutako zergen sarrera Aurrekontua (milaka eurotan)

Onura fiskalik gabe

	2007	%	2006	%	2007-06
Zerga Zuzenak	1.489.208	%45,6	1.343.265	%46,6	%10,9
IRPF	986.520	%30,2	901.077	%31,3	%9,5
Sozietateak	423.382	%13,0	373.262	%12,9	%13,4
Ondarea	53.614	%1,6	45.776	%1,6	%17,1
Oinordetzak	25.692	%0,8	23.150	%0,8	%11,0
Zeharkako Zergak	1.775.500	%54,4	1.540.113	%53,4	%15,3
BEZ	1.162.723	%35,6	965.730	%33,5	%20,4
Zerga Bereziak	454.280	%13,9	440.910	%15,3	%3,0
Ondar. Eskual. eta Ekin. Jur.	158.497	%4,9	133.473	%4,6	%18,7
GUZTIRA	3.264.708,0	%100,0	2.883.378,0	%100,0	%13,23

2 kuadroetan ikus daitekeen moduan azken datuak erabat aldatzen dira:

Nafarroako Gobernuaren arabera, zerga zuzenek sarrera guztien %51,3 ordezkatzen dute eta zeharkako zergek gainerantzeko %48,7. Baina errealitatean, zerga zuzenen bidez sarrera fiskalen %45,6 soilik lortuko da eta zerga zuzenen bidez beste %54,4.

Bestalde, 2007. urteko hitzartutako zergen sarrera aurrekontua 2006. urtekoarekin alderatuz gero, ikus daiteke zeharkako zergetatik datozen sarrerak %15,3 hazten diren bitartean zerga zuzenen bidez jasotakoa errealitatean %10,9 haziko da, baina %12,1

Nafarroako Gobernuaren arabera. Beraz, zeharkako zergek duten pisua handitu egingo da eta zerga sistemaren izaera erregresiboa indartu egingo da.

Zerga zuzenen barne, diru bilketarako ahalmenaren arabera zerga mota garrantzitsuenak PFEZ da, baina zerga honek errenta birbanatzeko duen ahalmena modu egokian erabiltzeko zerga ekitate printzipioa bete beharko litzateke, hau da, errenta guztiek tratamendu bera jaso beharko lukete, beraien jatorria kontutan hartu gabe.

Baina kapital errentak eta ondare hazkunderak PFEZ-ren eskala erabili gabe zerga tasa finko batez zergapetzen direnez, fiskalitate mailako oinarritzko justizia arau hau ez da betetzen. Horren ondorioz, besteren kontura lana egiten dutenen errentek jasaten dute zerga honen progresibitatea.

Zeharkako zergen artean BEZ-a eta Zerga Bereziak dira garrantzitsuenak. Hauek ondasun eta zerbitzuen kontsumoa zergapetzen dute progresibitate elementurik barneratu gabe; hau da, errenta mailaren arabera ez den zerga tasa finko baten bidez. Errenta baxuenak zati handiengan kontsumora zuzentzen direnez, presio fiskal handiagoa jasaten dute zeharkako zergen pisua areagotzean.

Orokorrean zerga sistema batek progresibitate fiskalaren printzipioa betetzen duela esaten da zerga zuzenen bidez jasotako dirua zeharkako zergen bidez jasotakoaren bikoitza denean. Baina Nafarroan, zeharkako zergen diru bilketa zerga zuzenena baino handiagoa da 1998. urteaz geroztik.

IRUÑEA, 2006ko ABENDUA